

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, **MOZIO ARRUNT** hau aurkeztu nahi du Chillida Lekuri buruz, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Chillida Leku museoa itxita dago 2010eko abenduaz geroztik, denbora tarte luzeegia, zalantzarik gabe.

Chillidaren obra baloratuenetako bat da donostiar eta gipuzkoar artisten artean. Eskultoreak utzitako ondareak balio kalkulazina du, eta mundu osoko erakusketetan ikus daiteke. Horregatik, uste dugu ez dela egokia egoera honetan jarraitzea, are gehiago kontuan izanik museoa kokatuta dagoen ingurunea.

Jakin badakigu hainbat erakunde harremanetan izan direla akordio batera iristeko ahaleginean, eta zeregin berezia izan duela horretan Eusko Jaurlaritzak. Hala eta guztiz ere, 2016ko Hiriburutza hasteko bi hilabete falta direnean, akordiorik gabe jarraitzen dugu.

Pisuzko iritzi publiko eta pribatu ugarik uste dute ez duela zentzurik Chillida Leku museoa itxita jarraitzeak Kultur Hiriburutza hastear den honetan.

Kultura arloan duen garrantziaz gainera, nabarmentzekoa da turismoan izango lukeen eragin positiboa, bai Gipuzkoan bai Donostian.

Horregatik guztiagatik, Talde Popularrak Mozio Arrunt hau aurkezten du:

Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari jarraitzeko Chillida familiarekin hitz egiten, museoa berriz irekitzeko 2016ko Kultura Hiriburutzan, baita gerora begira ere, hiriburutzaren legatu modura.

Donostia, 2015eko urriaren 9a

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea